

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Udal Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, ARAU-PROPOSAMEN HAU aurkezten du, GIZABIDEARI, BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBITASUNARI ETA HIRI-PAISAIAREN BABESPENARI BURUZKO ORDENANTZA ALDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Espazio publikoaren babesa herritarren eta administrazioaren artean partekatutako erantzukizuna da. Manifestazioak, elkarretaratzeak eta aldarrikapen-egintzak oinarrizko eskubideen erabileraren funtsezko parte dira, bai eta nola adierazpen-askatasuna eta bilera-eskubidea ere. Hala ere, erabilera horrek bateragarria izan behar du hiri-altzarien kontserbazioarekin, ondare publiko eta pribatuarekin eta hiriko garbitasunarekin.

Horrelako ekintza jakin batzuen ondorioz, kalte materialak gertatzen dira, hala nola pintadak, hausturak edo hiri-altzarien eta fatxaden narriadura, eta horrek kostu ekonomikoak eta kalteak eragiten ditu herritarren bizikidetzan. Horregatik guztiatik, Talde Popularrak honako hau proposatzen du:

ERABAKIA

1. Bidezkoztat jotzea Gizabideari, Bide Publikoaren Erabilera eta Garbitasunari eta Hiri-Paisaiaren Babespenari buruzko Ordenantza aldatzea, egintza horien antolatzaileen zuzeneko erantzukizun edo erantzukizun subsidiarioaren printzipioa txertatzeko, eragindako kalteak prebenitzeko edo konpontzeko behar diren neurriak hartzen ez badituzte.



PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

2. Ondorioz, arau-proposamenaren ekimen hau aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen mende jartzea, Udaltzaren Organo Araudiaren 115. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Donostia, 2026ko apirilaren 10a.

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea